

NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

INTERKOOP

- **Deskribapena/Helburua:** Deialdiaren xedea da Arabako enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzen laguntzea, banakako proiektuen bidez, bai eta Arabako enpresen arteko lankidetzaren proiektuen bidez ere, elkarrekin kanpora atera daitezten, norgehiagoka-erregimeneko dirulaguntzak emanez.
- **Onuradunak:** Irabazi asmorik gabeko enpresa eta erakundeak:
 - Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa txiki eta ertainek (ETE), beren osaera juridikoa edozein dela ere, ekoizpen edo zerbitzu zentronen bat Arabako Lurralde Historikoaren barruan daukatenez eta eratu zirenetik eskaera aurkezten duten egunera arte gutxienez urtebeteko antzintasuna dutenek.
 - Trakzio erakundeak, Arabako ete-ei nazioartekotze prozesuan laguntzeko proiektuen buru direnak. Trakzio erakundeak ere Araban izan behar dituzte sozietatearen egoitza eta zerga egoitza. Hala ere, betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak; horientzat nahikoa izango da ekoizpen edo zerbitzu zentro bat Araban izatea.
 - Irabazteko xederik gabeko erakundeak, honako baldintza hauek betetzen badituzte: Arabako ekoizpen ehunaren erakusgarri badira; egiaztatzeko moduko esperientzia badute enpresen nazioarteko sustapenean; alor horretan gutxienez hiru urteko ibilbidea badute; sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban badituzte; eta aurreko puntuan aipatutako onuradunak ez badira.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:**
 - 201.532,18 euro 2024ko ekitaldirako eta 201.532,18 euro 2025eko konpromiso-krediturako (enpresak).
 - 120.000,00 €2024ko ekitaldirako eta 120.000,00 euro 2025eko konpromiso-krediturako (irabazi-asmorik gabeko erakundeak).
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko martxoa
- **Laguntzaren antolara:** Norgehiagoka
- **Arduraduna:** Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua
- **Harremanetarako:** Amagoia Zubillaga: interkoop@araba.eus. Tel.: 945181818 (Luzapena: 52352).
- **Informazio gehiago:** <https://egoitza.araba.eus/es/-/interkoop>

GAUZATU INTERNACIONAL

- **Deskribapena/Helburua:** Euskal enpresek kanpoan egiten dituzten inbertsio produktiboei aurre egiteko finantzaketa ematea, 0 motako mailegu baten bitartez. Inbertsiok hiru urteren barnean gauzatu behar dira eta urte bateko gabealdiaren ondoren printzipala, bost urtetan itzuli beharra dago.
- **Onuradunak:** Kanpoan ezarpen produktiborako proiektuak dituzten euskal enpresak, tamainaren eta sektorearen aldetiko murrizketarik gabe.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 5.000.000 € (ordainketa-kreditua eta konpromiso-kredituak)
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko maiatza
- **Laguntzaren antolaera:** Norgehiagoka
- **Zuzendaritza arduraduna:** Nazioartekotzea / Erakunde laguntzailea: Basque & Investmen
- **Harremanetarako:** Inmaculada López: inmalopez@basquetrade.eus. Tel. 944037191
- **Informazio gehiago:** www.spri.eus/gauzatuinternacional/

ZABALDU

- **Deskribapena/Helburua:** Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidezko laguntza publikoa, fakturazio osoaren % 50etik beherako kanpo-fakturazioa duten enpresen kanpomerkatuetarako sustapenarekin lotura duen gastu arruntari aurre egiteko.
- **Onuradunak:** Euskadiko ETEak. Start up-ek tratamendu desberdina izango dute gastu hautagarrietan eta nazioartekotze-proiektuen balorazioan.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 3.000.000 € (ordainketa-kreditua eta konpromiso-kredituak)
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko apirila
- **Laguntzaren antolaera:** Ondoz ondoko ebazpena, neurtutako irizpideen arabera eskakizunen betearazpena eta proiektuaren balioespena aintzat hartuta.
- **Zuzendaritza arduraduna:** Nazioartekotzea / Erakunde laguntzailea: Basque & Investment
- **Harremanetarako:** Inmaculada López: inmalopez@basquetrade.eus. Tel. 944037191
- **Informazio gehiago:** www.spri.eus/zabald/

SAKONDU

- **Deskribapena/Helburua:** Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidezko laguntza publikoa, fakturazio osoaren % 50etik gorako kanpo-fakturazioa duten enpresen kanpomerkatuetarako sustapenarekin lotura duen gastu arruntari aurre egiteko, eta dibertsifikazioa sustatzeko merkatuetan guttizkoaren % 25etik beherako fakturazioarekin.
- **Onuradunak:** Euskadiko ETEak. Start up-ek tratamendu desberdina izango dute gastu hautagarrietan eta nazioartekotze proiektuen balorazioan.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 1.425.000 €
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko apirila
- **Laguntzaren antolaera:** Ondoz ondoko ebazpena, neurtutako irizpideen arabera eskakizunen betearazpena eta proiektuaren balioespena aintzat hartuta.
- **Zuzendaritza arduraduna:** Nazioartekotzea / Erakunde laguntzailea: Basque & Investment
- **Harremanetarako:** Inmaculada López: inmalopez@basquetrade.eus. Tel. 944037191
- **Informazio gehiago:** www.spri.eus/sakondu/

ELKARTU

- **Deskribapena/Helburua:** Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidezko laguntza publikoa, elkarlanean proiektuak aurkezten dituzten erakunde eta enpresen kanpo-merkatuetarako sustapenarekin lotura duen gastu arruntari aurre egiteko.
- **Onuradunak:** Elkarlanerako moduren baten bidez –partzuergoak, sustapen eta salmentataldeak, etab.– lotuta dauden elkarte eta enpresak.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 500.000 € (ordainketa-kreditua eta konpromiso-kredituak)
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko ekaina
- **Laguntzaren antolaera:** Ondoz ondoko ebazpena, neurtutako irizpideen arabera eskakizunen betearazpena eta proiektuaren balioespena aintzat hartuta.
- **Zuzendaritza arduraduna:** Nazioartekotzea / Erakunde laguntzailea: Basque & Investmen
- **Harremanetarako:** Jesus Mari Canton: jcanton@basquetrade.eus. Tel. 944037180
- **Informazio gehiago:** www.spri.eus/elkartu/

PILOTU

- **Deskribapena/Helburua:** Laguntzea nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuen garapenei, eskala murriztu batean egingo diren egiteko modu, metodologia, proposamen eta abar berri-tzaileak proban jartzeko, eta, behin-behinean, kopia daitezkeenak, bolumen handiagoko proiektuetan lortutako esperientziatik abiatuta.
- **Onuradunak:** Euskadiko ETEak.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 300.000 € (ordainketa-kreditua eta konpromiso-kredituak)
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko ekaina
- **Laguntzaren antolaera:** Ondoz ondoko ebazpena, neurtutako irizpideen arabera eskakizunen betearazpena eta proiektuaren balioespena aintzat hartuta.
- **Zuzendaritza arduraduna:** Nazioartekotzea / Erakunde laguntzailea: Basque & Investment
- **Harremanetarako:** Jesus Mari Canton: jcanton@basquetrade.eus. Tel. 944037180
- **Informazio gehiago:** www.spri.eus/pilotu/